

62E/2026 Ebazpena, abuztuaren 20koa, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena, *Sarean Euskaraz* jaialdi-jardunaldiak antolatzeko eta kudeatzeko kontratua AZPIKARI SLri esleitzen diona.

ERREFERENTZIA:	Espedientearen kodea: 0005-CP01-2026-000057
UNITATE KUDEATZAILEA:	Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua Euskararen Azterlan eta Plangintza Estrategikoaren Atala Telefonoa: 848 426054 Helbidea: Paulino Caballero kalea, 13, 31002 Iruña Helbide elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileraren ekainaren 18ko 30E/2026 Ebazpenaren bidez, *Sarean Euskaraz* jaialdi-jardunaldiak antolatu eta kudeatzeko kontratazio-espedientea onartu zen, eta 120.000,00 euroko gastua baimendu zen.

Lizitazio-iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2026ko ekainaren 22an, eta, ondoren, hil bereko 24an, Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

Lizitazio-prozedura irekia Nafarroako Lizitazio Elektronikoko Plataformaren (PLENA) bidez izapidetu da, eta, horren ondoren, espedientearen kontratazio-mahaiak lizitazioa esleitzeko proposamena egin du AZPIKARI SL enpresaren alde.

Ezarritako epearen barruan, AZPIKARI SL enpresak eskaintza bakarra aurkeztu zuen.

Kontratazio-mahaiak Baldintza Agirian ezarritako irizpideen arabera baloratu zuen eskaintza, eta emaitza hau izan zen:

IRIZPIDE KUALITATIBOAK	
	AZPIKARI SL
Xede- taldearen abiapuntuaren	2
Zerbitzuaren helburu operatiboak	1
Zerbitzuaren plangintza	4
Komunikazio- eta koordinazio- eredua	3,5
Kudeaketa logistikorako plana	3
Giza baliabideak eta baliabide materialak	7
Epe laburreko eragina ebaluatzeko sistema	3
Jaialdi-jardunaldien programa	9
Guztira	32,5 puntu



FORMULA OBJEKTIBOEN BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK	
	AZPIKARI SL
Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea	-
Genero-berdintasunaren arloan duen prestakuntza	2,5
Emakumeak izendatzea ardura-postu jakin batzuetarako	2,5
Eskaintza ekonomikoa	40
Guztira	45 puntu

Diagnostikoa eta helburuak oso modu sintetikoan planteatzen diren arren, eskaintzak gaitasun osoa erakusten du plangintza, logistika, komunikazio eta giza baliabideen funtsezko ataletan. Enpresak zerbitzuaren ezagutza egokia egiaztatzen du, aurreikuspen-gaitasuna eta kontratua bermeekin gauzatzeko beharrezko autonomia, eta, gainera, bere taldeak genero-berdintasunean duen prestakuntza espezifikoa nabarmentzen du. Horregatik guztiagatik, eskaintza egokia dela ondorioztatzen da.

Balorazioa ikusita, kontratazio-mahaiak kontratua AZPIKARI SL enpresari esleitzeko proposamena egin du, esleipenaren zenbatekoa 119.941,25 eurokoa izanik (BEZa barne).

Horrenbestez, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 100. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d eta 44. artikuluek eta Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onartzen dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuaren 3 eta 11 artikuluek emandako ahalmenez baliatuz, honako hau,

EBATZI DUT:

1. AZPIKARI SL enpresari (IFZ: B75102558) esleitzea *Sarean Euskaraz* jaialdi-jardunaldiak antolatu eta kudeatzeko kontratua, 119.941,25 eurokoa (BEZ barne), B30002 B3200 2279 334100 "IKTetan euskara erabiltzeko *Sarean Euskaraz* programa" 2026ko gastuen aurrekontuko partidaren kontura.
2. 2026ko ekitaldiko kreditu-erreserban sobratutako 58,75 euroko zenbatekoa eta 2027, 2028, 2029 eta 2030eko urteetako zenbateko bera ezeztatzea eta askatzea.
3. Kontratua 15 egun naturaleko epean formalizatuko da, ebazpen honen jakinarazpenetik zenbatzen hasita.
4. Ebazpen hau Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.
5. Ebazpen hau helaraztea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako,



CSV: 2AAA49A1319B9108

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-08-20 13:33:36

Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu Hartzailatza Delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Ekonomia Kudeaketako Ataleko Zentro Kudeatzailera, Euskarabideko Euskararen Azterlan eta Plangintza Estrategikoaren Atalera eta Euskarabideko Langileriaren eta Azpiegituren Kudeaketa Administratiboaren Atalera.

6. Ebazpen honen berri AZPIKARI SL enpresari ematea, eta jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez denez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioketela Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Iruñea, 2026ko abuztuaren 20an.

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urtiaga



CSV: **2AAA49A1319B9108**

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-08-20 13:33:36